

12. GAIA: ENTZUMENAK

Entzun *Jantzi artean* testua eta aukeratu erantzun zuzenak.

- Zer dira Jara eta Ihintza?
 - A) Ama-alabak
 - B) Lagunak
 - C) Dendariak

- Zertarako elkartu dira?
 - A) Aldagelak erretzeko
 - B) Arropa saltzeko
 - C) Arropa erosteko

- Zer hartu dute?
 - A) Soinekoa
 - B) Prakak
 - C) Lanpara magikoa

- Nolakoak dira prakak?
 - A) Estuak
 - B) Gorrixkak
 - C) Luzeegiak

- Zer asmo du Jarak prakak direla-eta? Erosiko ditu?
 - A) Bai, seguru.
 - B) Ez daki
 - C) Ezta pentsatu ere

Entzun Arrantzaleen mahonezko jantziak testua eta adierazi esaldiak egia ala gezurra diren. *Idatzi dena minuskulaz.*

- Hainbat herritako gizon-emakumeak aintzinako arrantzaleen gisan janzten dira oraindik jaiak ospatzeko.
- Horrelakoetan, neskek eta emakumeek soilik erabiltzen dute koadrodun zapia.
- Arrantzaleek lehen baserritarren antzeko jantziak erabiltzen zituzten.
- Brusak egiteko, itsasontzietako oihal zaharren zatiak erabiltzen zituzten askotan.
- Mahonezko oihala joan den mendearen hasieran erabiltzen hasi ziren.
- Hasiera batean, jaiegunetan bakarrik erabiltzen zituzten arrantzaleek mahonez egindako jantziak.